

POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA 2013-14

IV. PROIEKTU DEIALDIA

OINARRIAK

Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen laguntzarekin, Poltsiko Antzerkiaren alorrean euskarazko sorkuntzak bultzatzeko laugarren proiektu deialdia antolatu du. Hauek dira ezarritako oinarriak eta irizpideak:

1.- XEDEA

Poltsiko Antzerkiaren, eta orokorrean, formatu txikiko antzerkiaren inguruan euskarazko lanen eskaintza urria ikusita, alor horretan euskarazko sorkuntzak bultzatzea da lehen helburu nagusia.

Bestalde, sorkuntzarako diru laguntza soilaz gain, antzezlan horien ekoizpenean eta hedapenean laguntzea da bigarren helburua, eta beraz, aukeratutako proiektuarekin emanaldiak antolatu nahi dira ere.

Hala, trebakuntzaz eta hedapenez haratago, tartean ditugun sorkuntza eta ekoizpen atalak ere jorratu nahi ditugu ekimen honen bitartez, kultur katea bere osotasunean burutuz.

2.- KATEGORIAK

Kategoria bakarra eta orokorra izango da. Mota eta genero guztiak onartuko dira, baita diziplina artekoak ere.

Aurkeztutako proiektuek Poltsiko Antzerki formaturako egokiak izan beharko dute, hau da taberna edota bestelako espazio txikietara egokitzeko gaitasuna izan beharko dute.

3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Banaka zein taldeka aurkeztu ahal izango da.
- Partaideen adina 16 urtetik gorakoa izatea. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza banan bana baloratuko da.
- Aurkeztutako antzezlanak jatorrizkoak, estreinatu gabeak eta euskaraz izango dira*.

* Beste lanen batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko.

- Gidoiak ezin dute idatzita egon deialdia aurretik. Deialdian parte hartzeko nahikoa da eszena baten lagina bidaltzearekin.
- Proiektuak euskara maila egokia izan behar du.
- Antzezlan proiektuek ezin izango dute 70 minututik gora iraun eta gutxienez 30 minutukoak izan beharko dute. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza banan bana baloratuko da.

4.- DIRU LAGUNTZA

Antolakuntzak gehienez 4.000 euroko diru laguntza eskainiko dio epaimahaiak aukeratutako proiektu irabazleari (BEZ barne). Kopuru honen erdia hautaketa jakinarazpenarekin batera emango da; beste erdia, lehenengo ikustaldiaren ondoren. Ikustaldiak ez du ordainketa berezirik izango eta diru laguntzaren barruan sartzen dela ulertuko da.

Honez gain, sorkuntza proiektua gauzatzeko, kultur etxeek espazioak lagako dituzte martxoan zehar hautatutako obra lantzeko. Lagapenaren baldintzak eta egutegia Donostia Kultura eta hautatuaren artean adostuko dira.

Donostia Kulturak sorkuntza prozesuan zehar jorratutako lanaren laginak eskatu ahal izango ditu, eta proiektuan azaldutako baldintzak betetzen ez direla antzemanaz gero, diru laguntza kentzeko edo erreklamatzeko eskumena izango du.

Hala ere, hautatuko proiektua eta Donostia Kulturaren artean kontratua sinatuko da.

5.- ANTZEZLANAREN IKUSTALDIAK

Sorkuntza lanaren 4 estreinaldi egingo dira Poltsiko Antzerkia jaialdiaren programazioaren barruan, 2014ko maiatzaren 1etik 25era bitartean. Estreinaldi hau Donostiako 4 taberna ezberdinetan egingo da.

6.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

- Donostia Kulturako Antzerki eta Dantza unitateko kide bat
- Donostia Kulturako Kultur Ekintzako zerbitzuko bi kide
- Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko bi kide
- Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko kide bat

7.- HAUTAKETA IRIZPIDEAK

- Egitasmo artistikoaren originaltasuna
- Proiektu-txostenaren zorrotasuna
- Proiektuaren bideragarritasuna
- Taberna edota tamaina ezberdinetako bestelako espazio txikietara egokitzeko gaitasuna
- Euskara maila

8.- DATAK

- Hautagaitza deialdiaren hasiera: 2013ko urriaren 14a.
- Hautagaitza aurkezteko azken epea: 2013ko abenduaren 13a.
- Proiektuen aukeraketa: 2014ko urtarrilaren 15ean.
- Ikustaldia: 2014ko maiatzean (Poltsiko Antzerki Jaialdia).

9.- PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEAK

Proiektuak aurkezteko azkeneko eguna 2013ko abenduaren 13a izango da. Donostia Kulturako egoitza nagusian, Donostiako Udaleko Euskara zerbitzuko egoitzan edota edozein Kultur Etxetan egin ahal izango da 14:00ak baino lehen.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera inprimakia beteta
- Proiektu-txostena (proiektuaren nondik norakoak eta beharrezkoa den informazio guztia azaldu beharko du, bai formatu bai eduki aldetik)
- Eszena baten lagina
- Partehartzaileen aurreko lanen eta proiektuen aurkezpena (CV).

10.- BESTELAKOAK

Proiektu deialdi honetan parte hartzeak, oinarriak onartzea suposatzen du. Antolatzaileek beharren arabera edozein aldaketa egiteko ahalmena daukate, baita deialdi honetan jasotzen ez den edozein gairi buruzkoa ere. Halere, hartutako erabakiak onartuak izan behar dute.

Donostian, 2013ko urriaren 14ean